

# BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5357

*EBAZPENA, 2025eko azaroaren 5ekoa, Kulturako sailburuordearena, 2025eko ekitaldian ikus-entzunezkoen arloan, serieen modalitatean, proiektuak garatzeko emandako dirulaguntzen berri ematen duena.*

## AURREKARIAK

1.– 2025eko ekainaren 20an argitaratu zen EHAAn 2025eko maiatzaren 20ko Agindua, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, ikus-entzunezkoen arloan proiektuak garatzeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta horien deialdia egiten duena.

2.– 2025eko maiatzaren 20ko Agindua, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2025eko ekitaldian ikus-entzunezkoen arloan proiektuak garatzeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta horien deialdia egiten duenaren 11.2 artikuluan ezarritakoa jarraituz, ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie enpresa interesdunei. Jakinarazpen horrez gain, ebazpen horien edukia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Dena den, lehenik egindako jakinarazpenarena hartuko da jakinarazpen-datatzat.

Horiek horrela,

## EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2025eko maiatzaren 20ko Aginduaren babesean, hiru eranskin hauek argitaratzea: proiektuak garatzeko emandako dirulaguntzak (I. eranskina), diruz lagundu ez diren eskabideak (II. eranskina) eta artxibatutako eskabideak (III. eranskina).

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea, denek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 5a.

Kulturako sailburuordea,  
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

## I. ERANSKINA

## DIRUZ LAGUNDU DIREN ESKABIDEAK

Espediente zk.	Eskatzailea	Proiektua	Puntuak	Laguntza	2025	2026
					(% 50)	(% 50)
003-IG2-2025	A film to kill for S.Coop.P	Mindfuck	59,88	30.000,00	15.000,00	15.000,00
007-IG2-2025	Begira Produkzioak SL	Eutsi Goiari	73	30.000,00	15.000,00	15.000,00
006-IG2-2025	La Cornea Digital Koop Elk Txikia	Airbnbarik	66,56	35.000,00	17.500,00	17.500,00
004-IG2-2025	Pausoka Entertainment SL	Distira	61,94	35.000,00	17.500,00	17.500,00
002-IG2-2025	Platanoboligrafo SL	Groenlandia	62,67	35.000,00	17.500,00	17.500,00
008-IG2-2025	Sultana Films SL	Violeta	73,25	45.000,00	22.500,00	22.500,00
				Guztira:	210.000,00	105.000,00

## II. ERANSKINA

## DIRUZ LAGUNDU EZ DIREN ESKABIDEAK

Espediente zk.	Eskatzailea	Proiektua	Puntuak guztira	Arrazoia
001-IG2-2025	Venero y Gorrochategui SL	«Comiéndose el mundo» «Mundua jaten»	42,88	Ez du gutxieneko puntuazioa lortu (% 50).

## III. ERANSKINA

## ARTXIBATUTAKO ESKABIDEAK

Espediente. zk.	Eskatzailea	Proiektua	Arrazoa
005-IG2-2025	David Manuel Souto Fernandez	Serie documental sobre el futuro de los faros	Eskaeran atzera egin duela ulertu da, ez baitu nahitaezko dokumenturik zuzendu emandako epean (2025eko maiatzaren 20ko Aginduaren 9. artikulua).